

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko martxoaren 15a •

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Liburutegia tarteka itxi eta hemeroteka zerbitzua kendu behar izan dute, diru eta langile faltagatik • 2

Alfredo Lusarreta • «Atletismo Federazioak bere atleten alde egin beharko luke» • 7

Glaziarea ur, lasterrago

Adolfo Eraso geologo eta espeleologo lizarratarra Antartikan izan zen urtarrilean eta otsailean, Carmen Dominguez matematikariarekin batera. Collins glaziarean zenbat izotz urtzen zen jakin nahi zuten, aurreko urteetako datuekin konparatzeko. Eraitza espero zutena izan zen: azken urteetan glaziarearen barne erauzketa (izotz urtzea) handitu egin da; tenperatura igotzeak glaziareen barne erauzketaren handitzea baitakar. Ez da hipotesia, ziurtasuna da: Lurraren berotzeak glaziareak lasterrago urtzea eragiten du.

• ARGAZKIAK: ERASO / DOMINGUEZ



• EDURNE ELIZONDO



Lizarra •

Liburutegia, premia larrian

Liburutegia sarritan ixtera behartuta daude liburuzainak, langile falta dela eta

Arazo anitz sortu da azkenaldian Lizarrako liburutegian. Batetik, pertsonal falta sumatzen da, eta, bertzetik, egunkariak eta aldizkariak erosteko dirua murriztu egin da.



Lizarrako liburutegia tarteka itxi eta hemeroteke zerbitzua kendu behar izan dute, diru eta langile faltagatik.

● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

JOSE MARIA LACARRA LIBURUTegiak 2000ko urrian zabaldu zituen ateak, XVI. mendeko Egiatarren jauregian, Ruiz de Alda karrikan. Eraikin dotore horretan, irakurleak liburu baten murgiltzeko inoiz amestu ez duten leku xarmagarria dute. Ahatik, berriki erabiltzaileek sinadura bilketa abiatu dute, azkenaldian izaten ari diren arazoengatik protesta egiteko eta egoera hobetzeko xedearekin. Sinadurak Lizarrako Udalera igorriko dituzte.

Liburutegia premia larrian da-

goelako arrasto anitz aurkitzen ahal du bertara sartzen denak. Otsailaren aurreneko egunetik aitzina liburutegiak betidanik eskaini duen —eta eskaini behar duen— egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko zerbitzua kendu egin dute. Ildo horretan, hemeroteke zerbitzua ere kendu dute.

Karme Barrena, Laura Irulegi, Elena Sancha eta Rosa Zaratiegi liburuzainek idazki baten bidez jakinarazi dutenez, Lizarrako Udalak urtero liburutegiari ematen dion diru sarreratik erosten dira hainbat egunkari eta al-

dizkari; iaz 4.191 euro jaso zituzten eta horietako 1.202 erabili zituzten horretarako. Aurten Udalak aurrekontuak luzatu egin ditu eta, beraz, zerbitzua kendu behar izan dute liburuzainek. «Liburuak erosteko premia oso handia da eta, joan den urteko aurrekontuaren luzapena dela eta, zerbitzua kendu behar izan dugu, oso zerbitzu erabilia izan arren», azaldu dute aipaturiko idazkian. «Aurrekontuen egoera aldatu ezean, aurrerantzean Internet bidez baino ez dira irakurri ahal izango egunkariak».



Hala ere, saria eman diete

Liburutegia tarteka itxen dute

Arazo larriena, ordea, liburutegia itxi behar izatea da. Nafarkarik jakin duenez, langile falta dela eta, liburutegia itxi behar izaten dute liburuzainek sarritan. Liburutegia lanegunetan 09:00etatik 21:00etara dago zabalik. Eraikinak lau solairu ditu, eta 126 pertsonentzako eserlekuak, umeengan irakurmena sustatzeko gela eta liburuak kontsultatzeko eta ateratzeko zerbitzua. Egunero 150 pertsona inguru biltzen da liburutegira eta, orotara, 20.00 liburu daude. Horren guztiaren arduraz lau langilek besterik ez dute, gutxiegi gauzak duintasunez eta behar bezala egiteko.

Liburutegiaren erabiltzaileak kexu dira. «Pena da hain liburutegi handia eta ederra sarritan itxita egotea», erran du ikasle batek asaldatuta. «Gainera, ez dute aurretik ohartarazten, atean kartela paratzen dute eta, honaino etorri ondoren, amorrua ematen du».

→ Kristina Berasain

Liburutegiaren egoera larria bada ere, bertako langileak zerbitzua hobetzeko ahalegin handia egiten ari dira, eta horren lekuko da berriki jaso duten saria. Ume koskorren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzeko proiektu bat aurkeztu zuten Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eginiko deialdian. Asmoa hirugarren solairuan dagoen umeen aretoa erabiltzaile gehiago izatea zen, eta modu atseginez, jokoen bidez, umetxoaren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea.

Aretoa jokoak, panpinak eta, jakina, haurrentzako mota guztietako liburuak daude. 0 eta 7 urte arteko umeak egoten ahal dira gela honetan, bakarrik edo gurasoekin, margotzen, jostatzen edo liburu mundu magikoetan murgiltzen. Sariarekin bertze 200 liburu jaso dituzte eta, dagoeneko, haur txikien eskura daude.

Saritutako proiektuan *Ipuinaren ordua* izeneko ekimena zegoen, ipuin kontalariak, antzerkia, eskulanak, txotxongiloak liburutegira eramateko ekimena. Halaber, umeen aretoa ezagutarazteko, bisitak eginen dira eskola umeekin. Azkenik, astero, ospitalean dauden umei liburuak eramango dizkiete.

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



... goiza duela hiru aste aukeratu zuen; planifikazio zehatzari jaramon eginez erosketetan liburu zuen bere burua. Dendarik denda ibili zen. Merkeago feriatzea hotzarekin lotzen zuen. Hasiera motela izan zen, XIX.eko trenak bezalakoa edo. Hirugarren dendan urduritu zen. Jende uholdea izaiten da halako egunetan, pentsatu zuen, baina bulkadak sentitu eta, erdi haserre, erdi etsia, karrikara jo zuen.

Laugarren batera joan zen, jende gutxiago ukitu eta bilatzen ari zena edireteko esperantzaz. Lehenengo ustea bete zen, ez baitzegoen jendetzarik dendan; bizpahiru nerabe eta emakume zahar bat ez bertzerik. Apalez apal begiratu, zabaletik bazterrera miatu; koloreak, formak, neurriak aztertu zituen. Honderrean, dendariari galdegin zion. Honek, zeharo adeitsua «mmmm», baietz, bazekiela, «bo, seguru ez

Larunbat

baina frogatzeko badaezpada, karrika bereko zokoan dagoen hartan».

Eta ez horregatik eta zuri. Gomendaturikoan sartu zen eta iduriz, osoagoa emaiten zuen. Ilusioa berpizturik, xerka aritu zen hogeita hamairu minutuz. Ondoren, bekozkoa belzturik, saltzaile gaztearengana jo eta ea halakorik ba ote zegoen galdegin zion, eskuan zuen papera mutilaren begi aitzinean pausatuz. Saltzaileak papera hartu zuen. Arretaz irakurri eta gero zera komunikatu zion boz erlats bezain goxoz: Barka beza jaunak ene ezjakintasuna, berria nau lanbidean. Erreberentzia bat eginez papera eman zion.

Semaforo ondoan gelditzearekin batera kanpaiak jo zuten. Asperturik, akiturik, etxera joan zen. Eskailerak erritmo baxuan igo zituen. Giltza patrikatik atera eta serralan grak-grak eginez etxeratu zen. Jaka armairuan eskegi zuenean oroitu zen, txinpart gisa idurikatu zitzaion buruan. Ergel halakoa! Antsiaturik, ezkontzan erabilitako praka grisen gibelako poltsikoan eskua sartu eta azkenik desiatzen zuena kausitu zuen: Argudioa! Laburra baina sendoa. Malgua bezain balioanitz. Erabilerraza, berria eta klasikoa aldi berean. Hunkiturik, arnasa estu-estu, lagun minari deitu zion, nerbiosturik. Elkarrekin bazkaltzeko gelditu, telefonoa utzi, jaka jantzi, atea itxi eta kantari eskailerak launaka jaitsi ostean, jantziakirantz bidea hartu zuen, kontent, irria ezipainetan, bete-betea, zorientsu.



urda
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Gari soroak

Golemetara etortzen ginen bakoitzean gauza bera errepikatzen nion: ni haurra nintzenean hauek guztiak gari soroak zirela, zeren bera ez zen Donibane auzokoa eta, hortaz, ez zekien deus ere Donibane gariari buruz, eta orduan dena azaldu behar izaten nion, zeren hemen (hementxe!) zeuden haur nintzeneko geografiaren gauza garrantzitsu haiek guztiak, eta ez gerora etorriko ziren altzairu eta kristalezko dorreak.

Garai haietan, Donibane-Takonerako bideari la-carretera-de-la-longaniza esaten ziotela (eta ez Barañain Etorbidea) esaten nion, eta zumar zahar eta handiez inguraturua oroitzen dudala, eta erdian kiosko abandonatu bat zegoela. Kyns edariaren margo batekin, eta karretera hori zela pixka bat nire munduaren hegoaldeko muga eta gogoan dudala behin amona Mariarekin igaro nuela muga hura Fuentedelhierrora joateko, Faltzesko norbait bisitatzeke, eta baratzaren artean egin genuela bidea, eta esne-behiak ikusi nituela (hori ere bai), eta faltzestarraren baratzetik frontoi bat ikusten zela.

Azaltzen nion baratzeko bisita horretatik hainbat urtetara (gaztea nintzenean), Iturramara lagundu nuela ikastolako kide bat, eta frontoiarekin topo egin nuela ustekabean (Lopez frontoia, inguruan inongo baratzerik gabe jada), eta orduan kokatu nituela geografiko ki frontoi hura, baratzak eta baita behiak ere, eta erdi ametsetan nituen haur izan nintzeneko lurralde magiko haiek txikitu egin zirela bat-batean, uzurtu, eta, zergatik ez esan, pobretu ere bai.

Zinemara etortzen ginen bakoitzean, beraz, oroimeneko geografiaz hitz egiten nion, eta ni Donibane nintzela, bai, baina beste Donibane batekoa, gari soroena, eta pobretuko eta uzurtuko ez diren oroimen ukiezinak ere baditudala esaten nion: Biritxituko iturrian zeuden tritoiak edo lmenasa atzeko gereziondoak. Eta hau guztia esaten nion pixka bat zahararren plantak eginez eta ahotsari dar-dar eraginez, eta berak barre egiten zuen eta «baletz aitona, baletz» esaten zidan, eta, askotan, nire besoa pixka bat estutuz muxua ematen zidan belarri ondoan. Eta nik ongi nengoela sentitzen nuen.

→ Estibalitz Ortega

Larraun • Gaztetxea: gustuko tokian, aldaparik ez!

Pozik agertu dira gaztetxeko kideak, bi urtez luzatutako den egoera txarrari aurre egin ondoren



Lekunberri herrian dagoen Gabari gaztetxea berriz ere abiarazi dute. • ESTIBALITZ ORTEGA

Duela sei urte, Larraungo Udalak Gabari etxea gazte topaleku bihurtzeko aukera eman zion inguruko gazte talde bati. Egoerak, baina, txarrera egin zuen, eta gaztetxea ia desagertzeko zorian egon zen. Orain, aro berri bat hasi da.

L EKUNBERRI HERRIAN DAGO Gabari etxea, eta historia handiko eraikina da: txokolate fabrika, dantzaleku, hotel eta kuarter izatetik, gaztetxe izatera iritsi da, inguruko gazteek, Larraungo Udalaren laguntzari esker, eginiko ahaleginen ondorioz.

«Gaztetxea duela sei urte zabaldutako zen, bertako gazteek inguruan falta ziren ekin-tza autogestionatuak egiteko», adierazi du Gaintzako seme Oskar Estangak. «Antolakuntza talde egonkor bat zegoen, helburu berri, egoki eta aberasgarriak lortu nahi zituen, baina udalarenak ziren beste lokal batzuk bota eta gero, nora jo ez zekien gazte mordo bat sartu zen gaztetxean».

Orduan arazoak sortu ziren, bai gaztetxeko kideen artean, bai Lekunberriko eta Larraungo udalekin eta baita herriko jendearekin ere. «Gaztetxean gehienbat kontzertuak antolatu izan dira, baita gazteen arteko topaketak, ikastaroak eta

barrikoteak ere... Edonor sarzitekeen, baina gazte talde berri honek desordena sortu zuen Gabari etxean. Dena zikin eta hankaz gora zegoen. Gainera, herriko jendea kexaka hasi zen, eta egun batzuetan, Poliziaren presioa ere ikaragarria izan zen», dio 23 urteko Estanga gazteak.

Egoera okertu egin zen Lekunberriko guraso talde batek eskutitz bat igorri zuenean Lekunberri eta Larraungo udalera, gaztetxean drogak zeudela esanez. Honen ondorioz, gaztetxearen etorkizuna kolokan izan zen zenbait hilabetez.

Gazteak eta Udala elkarlanean

Egoera honi aurre egitea ez zen gauza makala izan. «Gaztetxea bertan behera uztea pentsatu izan dugu inoiz, ez baita erraza horrenbesteko presiopean lan egitea, baina bere alde lan egitea benetan merezi du. Honenbestez, Larraungo Udalarekin elkarlanean hasi ginen, zintotasun eta konfiantza osoz», gehitu du Oskar Estangak.

Orain, 16 eta 24 urte bitarteko hogeita bost bat lagunek lan egiten dute gaztetxean, gehienak Larraungoak, eta jendearen erantzunarekin pozik agertu dira. Gaztetxearen filosofia zein

den galdetutakoan, horrela erantzun du Estangak: «Gaztetxea beti izan da eta izanen da ilusioa duen jendearen etxea, bideak eraikitzeke eta probatzeko etxea, pasotismoa eta egunerokotasuna beren pisuz erortzen direla frogatzen duen etxea. Gabari etxearentzat proiektuak daude, ulertzeko da, baina, azken finean, etxe honetan dagoen onena ez da eraikina; hori ulertzen duenak gaztetxea ulertuko du, hori bizi duenak sekulako altxorra dauka», azpimarratu du Oskar Estangak.

→ Estibalitz Ortega

Baztan •

Kinto Bestak ospatzeko garaia

GARAI BATEAN URTE BEREAN SOLDADU JOAN ZIREN kintoak izaten ziren, eta eurek, gizonek bakarrik, Kinto Bestak ospatzen zituzten urtero. Bada Baztandik gerrara joan zirenen kintoen taldea ere. Denbora pasatu ahala, intsumiso eta kontzientzia eragozleak ez ziren inoren kintoak, ez baitziren soldadutzara joaten. Eta orain? Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi aspaldi pentsatu zuten urte berean sortu zirenek besta eguna ospa zezaketela, eta hari Kinto Besta izena eman zitzaion. Ku-

tsu militarra galdu zen arren, badira emakumeak oraindik onartzen ez dituzten kintak. Zer egiten ote dute gizonek besta horretan? Seguruenik, gainontzekoak egiten dutena.

Besta hauek ospatzeko ez dago egun zehatzik. Bakoitzak berea erabakitzen du; batzuek finkoa da eta bertzeena urtetik urtera erabakitzen da. Gazteenek Aste Santu inguruan egiteko ohitura hartu dute. Horiek ere urtero herri bat hautatzen dute bazkarira joateko. Adinekoak, ordea, Elizondon edo Elbeten

gelditzen dira. Martxoaren 23rako jadanik bortz Kinto Besta iragarri dituzte: 1926koak Elizondoko Galartzan, 1956an jaiotakoak Lekarozko Hiru Iturrin, 1962koak Elbeteko Posadan, 1974an jaiotakoak Elizondoko Eskisaroin eta 1980koak Irurritako Olarin. Apirilaren 6an 1939koak bilduko dira, Almandozko Beolan. Apirilaren 13an 1977an sortu zirenak bilduko dira, Lekarozko Sagardotegian. Oraindik ere aunitz zehaztu gabe dira; adi egon beharko du, beraz, bakoitzak ostatu-tan kartela noiz agertzen den ikusteko. Bitartean, jakin dezazuela bazkalondoan, arratsalde partean, kintoen talde guztiak Elizondon biltzen direla bestara.

→ Rakel Goñi

Antartikako glaziarretan



Antartikara joan aitzin, Adolfo Eraso eta Carmen Dominguez Argentinako Perito Moreno glaziarrean izan ziren; eta Patagoniako glaziar batean neurketa aparatuak jartzeko akordioa lortu zuten. ● EDURNE ELIZONDO



Scua txori batek eraso zion Adolfo Erasori. ● CARMEN DOMINGUEZ

instalatzeko, uraren maila, tenperatura eta konduktibitatea edo eroankortasuna neurtzeko. Horrela, aukeraturako glaziarren barne erauzketa zenbatuko zuten, udan lehenbizi, eta urte osoan gero. Lehen zundak, urtebetez neurtzen egon zenak, ordutik ordura hartuko zituen datuak. Eta bigarrena, behin-behinekora, zientzialari uruguiarren entrenamendurako izanen zen —haiek izanen baitziren datu bilketaren arduradunak Eraso eta Dominguez etxerazterakoan—, eta datuak bost minututik behin hartuko zituen.

Ikerketarako eta informazioa prozesatzeko, eskualdeko datu meteorologikoak behar zituzten. Baina uruguiarrek ezin zuten halakorik eman. Hortaz, Artigasko basetik bost kilometroa zegoen Bellingshausen errusiarren baseak emanen zizkien datuok. Duela bi urte, base horretan izan ziren Eraso eta Dominguez.

Bi zunda multiparametrikokoak paratu eta gero, aforo estazio bat instalatu zuten, ibaiaren ur-emia neurtzeko. Datu horrekin, eta bi zundek ematen dituztenekin kalkulatzeko ahal da glaziarrean urtzen den masa jeltatua; hau da, barne erauzketa.




Nelson labarrak. ● ERASO

Glaziar gainean paseoa

Baina ikerketa osatzeko, funtsezko lana zen GPS bidez jakitea zelako azalera zuen Collins glaziarra. Bi aukera zituzten, txapel izoztuan barrena abiatzea, edo ertzetatik joatea. Lehen aukera eguraldiaren arabera zuten, lainoa edo haizetza zegoenean ezinezkoa baitzen izotz gainean ibiltzea. Horrelakoetan, ertzetatik ibiltzen ziren, zangoak ere irensten zituen lokatzarekin tentu handiz. «Harrituta ikusi ditugu izotzetik sortzen diren ibai eta isurbide handiak», idatzi du Dominguezek. «Glaziarren mugak ikusita, duela bi urte nolakoak ziren gogoratu dugu, eta ohartu gara izan den aldaketa handiaz. Izotz galtzea handitzen doala dirudi. Lurra berotzearen ondorioak agerikoak dira lur antartiko hauetan».

Neurketak egin bitartean, Salamanca Canyon eta Estella Valley bisitatzeko izan ziren, errusiar batek duela bi urte horrela baitaibatuak Dominguez eta Erasoren omenez. Pinguinoak, itsas zakurrak, itsas elefanteak eta itsas otsoak ikusi zituzten bertako hondartzetan. Eta, noski, scua txoriak. «Haiei habiara hurbilduz gero, buru gainera erasotzen dizu-



Antartikako Animaliak

Joan etorri etengabearen diren zientzialariek landara, Antartikako eremu izoztuetan itsasotik bizi diren animaliak besterik ez dago aurkitzerik: pinguinoak, scua txoriak, itsas zakurrak, itsas otsoak eta itsas elefanteak. Espedizioa iraun duen bitartean, Carmen Dominguez matematikari espainiarra gustura baino gusturago izan da animalien artean argazkiak egiten, aukera aunitzak eta paregabeak eskaintzen baititu Antartikak zeregin horretarako.

● ARGAZKIAK: ERASO / DOMINGUEZ

te. Baina zu aldentzea lortzen ez badute, txio-ka egiten dute eta txorikumeek alde egiten dute, isilean. Behin, bi egunez basekoekin hitz egin gabe egon ginen, eta helikopteroa bidali zuten gure bila. Helikopteroak ikus gintzan, Eraso haitz batzuetara igo zen, scua habia batetik hurbil seguruena. Berehala hasi zitzaizkion txoriak buruan mokoka, baina Adolfok alde egin ez zuenez, haietako batek aurretik kaka egin zion, baita buru gainean ere».

Itzultzeko garaia

Errusiarren Priroda aterpe tikian lo egin zuten behin, itsas elefanteen orro artean. Eta errusiarren elizkizun ortodoxo batean parte hartu zuten, basearen ondoan Antartikako lehen eliza eraiki nahi baitute. Eta beste behin, barbakoa egin zuten hondartza bate-

an. Eta pinguinoek kolonizaturiko Nelson uhartean izan ere ziren... eta, halako batean, egin beharrekoa egin eta gero, etxera itzultzeko garaia iritsi zitzaion Adolfo Eraso eta Carmen Dominguezi.

Arestian erran bezala, Erasok eta Dominguezek bi zunda paratu zituzten glaziarren barne erauzketa neurtzeko. Otsailaren bukeran etxeratu zirenean, zunda bat kendu bainan bestea utzi zuten, urte osoko datuak har zitzan. Uruguiarrek arduratuko ziren horretaz. Eta errusiarrek urte osoko datu meteorologikoak ematen dituzte. Horrela, glaziarren urte osoko erauzketa balioa jakin dute. Baina, ezuste guti, lehenik ere badakitena baieztatu besterik ez du eginen; tenperaturen igotzeak erauzketa azkartzen duela, alegia.

→ Asier Azpilikueta

Uste zutena baieztatu

ERASO ETA CARMEN DOMINGUEZEN ANTARTIDA 2002 ESPEDIZIOA-
lburu nagusia zen jakitea zenbaterako zen aukeraturiko glaziar barne erauzketa; hots, urtutako izotza zenbaterako zen. Egin reko azterketak egin eta gero, lortu dute Collins glaziarren urtutako barne erauzketa balioa: 0,38 metro kubo segundo-
barroaren kilometro koadroko.

tude berean (62°H) eginko beste neurketa batzuekin konparatuz (0,19, 1989. urtean; 0,21, 1990ean; eta 0,29, 2000an) eta argi dute azken urteetan glaziarren barne erauzketa handitu egin zutela izan baino lehen, emaitza hau lortuko genuen beldur ginaraziz du Carmen Dominguezek. «Izan ere, tenperatura duela urteko baina handiagoa dela nabaritu dugu. Gainera, behin egin zuten, normalena elurra egitea zenean. Eta gure ibilbideetan zehar zantzuak ikusiak genituen».

glaziarretik ateratzen zen ur emariaren datuak eta errusiarrek ikusi datu meteorologikoak hartuta, Eraso eta Dominguezek ikusi tenperatura handitzen denean, ia berehala handitzen dela glaziarren barne fusioa, eta alderantziz. «Hau guziaz ez da iritzia», dio Dominguezek. «Hau ez da Glackma proiektuaren lan hipotesia. Hau da: tenperatura igotzeak glaziarren barne erauzketa handi-
dakar».

● ARGAZKIAK: ERASO / DOMINGUEZ



Ura eta izotza

Antartika Hego Hemisferioko kontinentea da, Hegoburu ardatzaren inguruan, Antartiko Ozeanoak inguratua eta gainerako lurraldeetatik bereiz dagoena. Ertzetako uharteak barne, 14 km2 zabal da, hegoaldeko 60. paralelotik beheiti. Izotzak lur guziaz estaltzen du, eta itsasoraino ere iristen da. Ura eta izotza elkartzen direlarik, urdin besta sortzen da.



Nazioarteko ikerketa

'Antartida 2002' izeneko espedizio glaziologikoak «nazioartekoa» abizena zuen. Izan ere, Adolfo Eraso lizarretarrak eta Carmen Dominguez espainiarrak Artigas base uruguiarrean ostatu hartzeaz gainera, Bellingshausen baseko errusiarren laguntza logistikoa izan zuten. Guzian artean hartu zituzten azterketarako beharrezko datuak.

● ARGAZKIAK: ERASO / DOMINGUEZ



Tenperaturen igotzeak glaziarren urtzea handitzen duela frogatu du Adolfo Erasoren azken espedizio glaziologikoak

Adolfo Eraso geologo eta espeleologo lizarretarra eta Carmen Dominguez matematikari espainiarra Antartikako Collins glaziarrean lan egiten izan dira urtarril eta otsailen. Bertan ziren zientzialari uruguiarren eta errusiarren laguntzaz, ur moduan galtzen den masa jeltatua aztertu eta zenbatu dute. Azterketak baieztatu egin du lehenagotik uste zutena: Lurraren berotzeak glaziarren lasterrago urtzea eragiten du.

ANTARTIDA 2002' IZENEN
nazioarteko espedizio glaziologikoa International Commission Glacier Caves and Karst in Polar Regions elkartearen ikerketa ildoan baitan zegoen, eta Glackma proiektuan —glaziarretan, kriokarstetan eta ingurumenean— ari zen lanean. Proiektu honek abiapuntu bat du: Lurraren batez besteko tenperatura igo egin da, berotegi efektuagatik. Espedizioak Glackma proiektuaren oinarriko estrategiari segitzen zion: glaziarren barne erauzketa aztertu behar zuten, bi hemisferioetako konparatuz, latitudeen arabera eta urte ezberdinetan, denboran duen bilakaera ikusteko.

Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuak espedizioa lagundu eta finantzatu zuen, eta, horregatik, astero informazio andana iritsi da Nafarroako hedabideetara: Dominguezek idatzi kaiera eta argazkiak.

Urtarrilaren 4an abiatu ziren Eraso eta



Carmen Dominguez, zodiak batean, Nelson uhartean inguruetan. ● ADOLFO ERASO

Dominguez, 150 kilo materialekin. Txileko Santiagon 30 gradutik goitik tenperatura aurkitu zuten (udan ziren). Hala ere, Antartikara hegana egiteko eguraldia egokia izan arte itxaron behar izan zuten. Horren zain ziren bitartean, Argentinako Patagoniara joan ziren bisitan, Perito Moreno glaziarra ikustera. Era berean, egonaldia aprobetxatu zuten Argentinako agintariekin adosteko Patagoniako glaziar batean neurketa aparatuak jartzeko akordioa sinatuko zutela; betiere, Glackma proiektuaren baitan.

Uruguiarren eta errusiarren laguntza

Urtarrilaren 18an iritsi ziren Antartikara. Artigas basean besoak zabalik hartu zituzten uruguiarrek, baita ostatu eman ere.

Eraso eta Dominguezek egin zuten lehenbiziko lana izan zen Collins glaziarretik sortzen zen ibaian bi zunda multiparametrikoko

Enbor beretik


Enborra. Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak. **Mikel Laboak** haren ahots sudurkariaz abesturikoa gogora ekarri izanagatik ere lasai: ez da inor hil, ez naiz neure buruaren epitafioa prestatzen ari... baina, dena dela, inoiz hiltzen banaiz, arren, otoi eta faborez, ez diezadatela mota horretakorik jarri —aurrera egin aurretik, argi gera dadila Laboak ahots sudurkaria duela diodanean ez natzaiola Euskal Herriak sekula eman duen abeslaririk handienari ziria sartzen ari. **Pello Lizarralde** gehigarrikideak behin orrialde hauetan bertan izkiriaturikoarekin bat nator: nardagarri deritzot Ixiar, Maider eta enparauek euskal nerabe abeslarien artean eragin duten begetazio ikutuko doinu izurriteari. Baina Laboarena, bistan da, bestelakoa da. Gerardo mus bikotekide ikurrina baino basakoagoarekin behin baino gehiagotan sesiorik izan dut haren kontura; izan ere, aluak, gazte irudia eman nahian edo, Berri Txarrak eta ez dakit zer beste gazte talde goraipatu, eta Laboa kritikatzeko du. Besteak beste, esaten du eszenatokian **Lizardi Rimbaud** etorri duk hitaz galdezka... abesten eta aldi berean dantzatzeko duelarik, edo eta Lekeitioetan ari delarik, **Chiquito de la Calzada** ematen duela. Hau mundu arranoa, hau—.

Ezpala. Beraz, gidoitxo arteko esaldi luzeetan marka guztiak hautsi dituen arestiko paragrafoan enborra aipatu dut neure ezpalaz aritzeko,



Chiquito de la Calzada, umorista espainiarra.

duela pare bat urte seguru asko ikastolako irakasle talibanen batek egin burmuin garbiketaren poderioz Juan Kruz deitzeari uko egin eta harrezkero Jon deitu behar izaten duen neure begi ninietako 11 urteko mutikoaz, neure semeaz. Igandean, bazkalondan, besaulkian hondoratuta, **Pernando Barrenaren** iguala den ETBko eguraldi gizon berriaren, **Urko Aristi**ren, iragarpenei so Morfeoren maga-



Urko Aristi, ETBko eguraldi iragarle berria.

lean erortzeaz nintze-la, Jon hurbildu zitzaidan. Lagunekin futbol partida jokatzera joatekoa zen. Haren urtebetetzean oparitu nion eta igandea arte behin ere jantzi ez zuen Osasunaren elastikoa non zegoen galdetu zidan. Hunkitu ninduen. Bere garaian sekulako kalapita izan genuen zorioneko kamisetaren kontura. Berak bizkarrean **Pipa Gancedoren** izena nahi zuen, eta nik **Miranda** zioena oparitu nion. Nire lantokian, Unzun bertan erosi nuen, eta **Santiago Cerveraren** klonak

diruditen Kiroletako saltzaile erreionalista muturrekoekin izan ika-mikak aukeraketa hori egitera bultzatu ninduen. Beraz, hunkituta, malko bihurri batek masailan behera ihes egiten zidala —halakoa naiz ni, **Miranda** bera baino hunkiberagoa—, kamiseta armairutik atera eta semeari eman nion. «Duela bi astetik ikastolako guztiek halakoa nahi dute», esan zidan. Ezin izan nion deus erantzun, semeak kamiseta soinean zeramala alde egiten zuen bitartean, lokarria bainuen eztarrian. «Mila esker, Miranda», pentsatu nuen.



panpilonia zirkus

Ximenez de Rada

Gurutze plazako institutua hiriko zaharrena da, 150 urte baino gehiago ditu, eta egungo kokapenean bere bizitzaren herena eman du, hots Bigarren Zabalgunearen erdi-erdian. Eraikin handiustea da, larderiatsua, Francoren ikurak mehatxagarri agertzen dituena. Eraikin bakarra izanik ere, lehenago, neskak eta mutilak guztiz bereizita zeuden. Horrela, neskak Bergamin karrikatik sartzen ziren, eta, mutilak, aldiz, Zangoza karrikatik. Nesken institutua Principe de Viana zen, eta, mutilena, berriz, Ximenez de Rada. Katedradunek, irakasleek, administrariak eta atezainek euren sarrera zuten, Gurutze plaza aldean dagoen atari nagusi itsusia, alegia.

Katedradunen artean, jendaila ederrak zeharkatu du atari nagusi hori urteetan

barrena. Felliniren *Amarcord* filmetik aterakoak ziruditen, zaharrak izanagatik ere, sekula jubilatzen ez zirenak. Konparazio batera, itxura beldurgarriko gerra elbarri herren besamotza, matematika irakaslea, *el manco*. Edo, *el zapo* hura, literatura katedraduna. Egunero, traje bera eramaten zuen, zimurrik gabe, itxuraz ongi hezia, dotore eta fina, gizon hizketa garbia. Behin batean, ikasgelako argia joganik, atezainari galdetu zion: «Mesedez, atezain jaun prestua. Esan al zeniezadake zerk etenarazi ote duen argiaren indarra?». «Bai, plomoak izorratu dituk».

Ikasleen artean ere suerte eta itxura guztietako jendea zebilen. Herrietako ikasle aunitz, hiriko eskola nazionaletatik iritsitakoak, Galizia etorbideko Komandantziako txapelokerren eta Potasasko



Gurutze plazako institutuaren fatxada.

meatzari asturiarren seme-alabak, San Fermin ikastolako ikasle ohiak eta, azkenik, Jesuiten ikastetxetik egotzitako errege kristoren gerrilleroak, alfer-alferrak, beisbol batearekin bai baina liburuekin ongi moldatzen ez zirenak. Hobe, abizenik ez aipatzea. Ikasle fatxek bazuten adiskide min bat irakasleen artean, hots,

horma artesitu zen eta katedradun eterno batzuk jubilatu. Aldian behin, ordea, mutil txiki suhar bat agertzen zen atariaren ondoan, Mini Morris batean zutik. Besoak gora eta behera, sekulako mitina botatzen zuen: «Maotxetun...maoistak...ikasleen abangoardia...». Ikasleak, ordea, paso egin eta futbolinetara joaten ziren.

Enrike Diez de Ultzurrun

Alfredo Lusarreta

ATLETA

«Federazioak bere atleten alde egin beharko luke»

Haserre daude Nafarroako iraupen lasterkariak.

Nafarroako Atletismo Federazioaren jarrera salatu dute, eta erakunde horretako arduradunengandik irainak besterik ez dituztela jaso azpimarratu. Euskadiko Kros Txapelketaren inguruko eztabaidak bultzatu ditu beren jarrera agertzera.

NAFARROAKO ETA EUSKADIKO kros txapelketak bereizita egin dituzte aurtan, baina biak data berean, otsailaren 10ean. Aukeratu behar izan zuten atleta nafarrek. Euskadiko Txapelketara joan ziren asko —Ortue-llan jokatu zen, Bizkaian— Nafarroako selekziotik kanpo gelditu ziren joan den asteburuko Espainiako Txapelketarako, tartean Lusarreta.

■ **Mendekua edo zigorra dela uste duzu?**

Lehenik eta behin, esan beharra dago Euskadiko Txapelketarena ez dela konturik garrantzitsuena afera honetan. Lehen-dik ere jasan behar izan ditugu iraupen lasterkariok gure kontrako irainak Nafarroako Federaziotik. Euskadiko Txapelketaren ondotik gertatu dena, hala ere, nik uste dut mendeku hutsa izan dela; zigorra izan da egin duten selekzioa.

■ **Onenak selekziotik kanpo gelditu direla salatu duzue.**

Nik uste dut helburua beti izan beharko lukeela ahalik eta selekziorik onena osatzea, eta hori ez da gertatu kasu honetan. Horretaz gain, Nafarroako Federaziotik gezurrak besterik ez ditugu entzun auzi honen inguruan. Selekzioa osatzeko kirol hizpideak erabili dituztela esan dute, baina hori ez da egia. Eta horretaz gain, hainbat postu bete gabe utzi dituzte.

■ **Hori gertatzen den lehen aldia da?**

Ez, arazo hori aspaldikoa da. Madrilen edo Andaluzian izan diren txapelketatan, adibidez, ez dugu selekzio osorik aurkeztu. Lehen, hamabost kidek osatzen zuten selekzioa, eta inoiz ez dugu bete. Aurtan, bederatzi

izen emateko aukera zegoen, eta aurtan ere gutxiago deitu dituzte. Selekzioa ez osatzea niri oso gaizki iruditzen zait, batez ere arazo honen guztian atzean teknikoak ez diren arrazoiak badirelako.

■ **Selekzioari buruz Javier Makaia presidenteak erran du Nafarroari muzin egiten diona ezin dela haren ordezkari izan; zer deritzozu horri?**

Afera honen gakoa izan da une zehatz batean Nafarroako eta Euskadiko txapelketak data berean egitea erabaki zutela, arazoa moztzeko edo. Nafarroari muzin egin diogula? Beste gezur bat. Gauza bat da zure helburuen arabera data berean egiten diren bi lasterketetako batera joatea, eta beste bat inori muzin egitea. Erruduntzat jö nahi gaituzte Nafarroako Federaziokoek, baina gauzak ez dira horrela gertatu.

■ **Ez da Makaia kritikak bakarrik; kirolari zaren aldetik zer deritzozu zure federazioko buruak horrelakoak errateari?**

Ulertezina da. Batetik, guk lasterketan parte har dezagun nahi du, baina, aldi berean, oso atleta txarrak gara; bere ustez, ez gara goi mailakoak. Inkoherentzia hutsa da.

■ **Haren dimisioa eskatu duzue hainbat atletak. Bera da, zuen ustez, zuen eta fe-**

derazioaren arteko harreman txarraren erantzule?

Nik uste dut Makaia federazioaren euritakoa dela, eta badakigu haren ondoan beste hainbat lagun dagoela, era askotakoak. Guk haren dimisioa eskatu dugu, bizpahiru arrazoi-rengatik: errespetu faltagatik, iraupen lasterkarien alde ezer ez egiteagatik eta gu iraintzeagatik. Aurtan Euskadiko Kros Txapelketaren auzia gertatu da, eta horrek bultzatu gaitu

gure egoera salatzea, baina ez da kontu bakarra.

■ **Noiz hasi zen zuek salatzen duzuen utzikeria iraupen lasterkarietara?**

Makaia presidente izendatu zutenetik, hain zuzen ere.

■ **Eta zein da utzikeria horren arrazoiak?**

Prensa munduan, edo kalean, oro har, iraupen lasterketek, 1.500 metrokoek eta antzekoek zale asko dituzte, jendeak gustuko ditu. Bestelako probek, be-

soslaia

1968. urteko urrian jaioa da Alfredo Lusarreta. Hamasei urte zituenean, Los Angelesko Olinpiar Jokoak ikusi zituen telebista batean, eta, une hartan, atletismoak erabat harrapatu zuen. Gaur arte.

Hamabi urte eman ditu Pamplona Atletico taldean; Mizuno talde erdiprofesionalean zegoenean, ordea, hestea arazoak izan zituen, eta pare bat urtez egon zen atletismoan aritu gabe. Egun, Hiru Herri taldeko kide da atleta iruindarra.

Lanbidez ospitale zaindaria da, baina atletismoari egunero eskaintzen dio tarte bat. Urtean bost edo hamar egunez bakarrik hartzen omen du atseden. Kezkaz so egiten dio Nafarroako iraupen lasterkarien egoerari, eta orain hitza hartu badute atletek hala erabaki dutelako izan dela nabarmentzen du.

rriz, ez dute merezi duten oihartzuna lortzen, eta, agian horregatik, inbidia puntu bat dago tartean, nire ustez.

■ **Inoiz izan al duzue Makaia-rekin arazoak hitz egi-teko aukera?**

Ez, inoiz ez. Halako egoeretan ohikoena bilerara deitzea izanzen litzateke, baina orain arte ez digute txintik ere esan. Guk, beraz, ezin dugu ezer egin. Gure ustez, kontu hau konpontzeko giltza Nafarroako atleten alde egitea da, eta, hortik aurrera, ziur naiz atletismoaren egoera aldatuko litzatekeela. Une honetan, Makaia-ren dimisioa eskatu dugunok ez dugu uste Nafarroako Atletismo Federazioa gure ordezkari denik.

■ **Egoera horrela egonda, Nafarroan Euskadiko Kros Txapelketa berriz egiteko aukerarik izanen dela uste duzu?**

Javier Trigo Kirol Institutuko buruaren hitzak entzun eta gero, hemendik aurrera ez dugu Euskadiko Txapelketa hemen berriz izanen. Lau urteko epea dugu konponbidea bilatzeko. Uste dugu, hala ere, hurrengo urtean hemen egin beharko litzatekeela txapelketa, lau urte itxaron orde. Izena aldatzea izan daiteke konponbidea? Ez dakit, hainbat izan ditu, jada, eta horrela gaude.

→ Edurne Elizondo



● RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

«Aurtan Euskadiko Kros Txapelketaren auzia gertatu da, eta horrek bultzatu gaitu gure egoera salatzea, baina ez da kontu bakarra; gure kontrako irainak aspaldikoak dira»

AUZOKO KUTXA

Beno azkenean Bizirik irauteko Babeslea lortu dugu!!

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra parodabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskutik zure eskuei Baldintez Kaxkarretan hori bai!!

Mundu irekia. Hau da gure kultura.

www.auzokokutxa.es



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Unibertsitatea eta gu

Nafarroako ikastola eta eskoletan urreak adina balio duten hiru urteko haurrak erakartzeko ahaleginetan ari diren bitartean, Unibertsitatea ere albiste-iturri oparoa izan da azken bolada honetan. Kontuen Ganberak berriro erakutsi duenez, NUPen ekonomia irakasle aunitz badira ere, ez dira bertako kontuak argitzeko bezain onak. Bertzalde, aipaturiko txostenaren arabera Unibertsitate Publikoak ikasleen %10 galdu ditu azken urteotan. Baby-boomaren seme-alabak ikasle izateari utzi dioten seinale.

Unibertsitateari dagokion bigarren kontua, aurrekoa bezain iluna: Tuterako zentroa. Tuterarrek unibertsitatea nahi dute, eta ez da harigarria. Oizko jendeari edo Añorbe koei galdetuz gero, antzeko erantzuna emanen luke. Horren harira errektoreak entzun diodan zentzuzko gauza bakarrenetakoa bota du: Tuteran unibertsitatea martxan jartzea desegokia bezain garestia litzateke. Corellarrak berehala erantzun dio: txosten batean oinarrituriko iritzia hori Unibertsitatearena da, baina Gobernuaren zein Parlamentuaren iritzia kontrakoa da, alderdi guztiak Tuterako unibertsitatearen aldekoak baitira.

Tira, harigarria izanagatik, UPN, PSN, Batasuna, EB, EA-EAJ eta CDN ados jarri omen dira, guztiak Tuterako Unibertsitatearekin bat eginez. UPN eta sozialisten jarrerak ulertzeko bi datu gogoratu behar ditugu: bi alderdietako nagusiak Erriberakoak dira eta, batez ere, biek boto aunitz biltzen dituzte bertan. Hauteskundeetarako urtebete falta delarik, ez dira botoak amildegian behera botatzen hasiko. Eta gainerakoei dagokienez, inor ez da ausartu egia erratera, egiaren bidez deus onik aterako ez dutelakoan. Erriberako jendea lasai egon dadila. Hurrengo hauteskundeetarako Unibertsitatea egia bihurtuko da. Nafarroako euskaldunek, aldiz, hemendik alde egin beharko dute euskaraz ikasten segitu nahi badute. Izan ere, gurea tuterarren arazoa baino larriagoa da: ikasle kopuruaren beherakada ikusirik, eta eskoletan D ereduak izan duen gorakada kontuan hartuz, txosten tekniko batek euskara ahalik eta azkarren bultzatzeko gomendioa eman lezake.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Aitzoain:** Loquillo y los Trogloditas taldeak Artsaian joko du gaur, 23:00etan.
- ▶ **Tafalla:** Bol taldeak Gabalzeka tabernan joko du gaur, 23:00etan.
- ▶ **Atarrabia:** Javier Sunek Thé Indian tabernan joko du gaur, gaueko hamabietatik aurrera.
- ▶ **Zangoza:** Pablo Sarasate orkestrak Karmengo entzutegian joko du bihar, 20:30ean.
- ▶ **Uharte:** El Color de la Duda taldeak Zona Limiten joko du bihar, gaueko ordu batetatik aurrera.
- ▶ **Aitzoain:** Barricadak bere azken diskoa aurkeztuko du ostegunean, 22:00etan, Artsaian.

BERTSOLARIAK

- ▶ **Izkue:** Bertso afaria egingen dute gaur, Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin.
- ▶ **Itsasu:** Bertso afaria egingen dute gaur, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Gillen Hiribarren, Patxi Iriart, Ekhi Erremundegi eta Mizel Mateorekin.
- ▶ **Garraida:** Estitxu Arozena, Aritz Saraguetza, Ekintza Landa eta Josetxo Etxenike Etxabarrengoa elkartean gaur, 21:30ean.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Etxabe, Xabier Legarreta, Julen Zelaieta eta Pello Goikoetxea gaur Garrazta elkartean, 21:30ean.
- ▶ **Elizondo:** Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Mikel Altzuartek, hainbat musikariren laguntzaz, Mariano Izetaren omenezko bertso ikuskizuna egingen dute bihar, 18:00etan, eliz aretoan.
- ▶ **Lakuntza:** Xabier Silveira, Oskar Estanga, Mikel Altzuart eta Nerea Bruño bihar Pertza elkartean, 21:30ean.
- ▶ **Uitz:** Iñigo Olaetxea, Joxema Leitza, Iñigo Ibarra eta Joseba Beltza bihar Orixenea elkartean, 21:30ean.

▶ **Aniz:** Bittor Elizagoien, Juan Mari Lopez, Xabier Terreros eta Eneko Lazkoz bihar elkartean, 21:30ean.

HITZALDIAK

- ▶ **Iruñea:** Teo Etxaburu, Jose Angel Irigarai, Jon Sarasua eta Txepetxeekin batera, Juan Carlos Etxegoien *Xamar* idazleak *Orekan, herri eta hizkuntzen ekologiaz* bere azken liburua aurkeztuko du asteazkenean, 19:30etan, Maisonnave hotelean.
- ▶ **Barañain:** Harizti taldearen urteurrena dela eta, Magi Beullent eta Maribel Garcia Irungo Alardeaz solastatuko dira bihar

udaletxeko erabilera anitzeko aretoan, 16:00etan.

ZINEMA

- ▶ **Iruñea:** Gaur, Karrikiren zinemaldian, *Chicken run* filma emanen dute euskaraz Golem-Baiona zinematokietan, 20:30ean.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Burlata:** Gardena taldearen *Ba-soa* erakusketa hilaren 24a arte ikusten ahal da Joakin Azkarateko kultur aretoan, asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.


▶ **Barañain:** Nafarroa etnografikoa erakusketa kultur etxean izanen da hilaren 25a arte, astelehenetik ostiralera, 18:30etik 20:30era.

▶ **Iruñea:** Kenneth Engblom margolari suediarren lanak Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42) izanen dira hilaren 27a arte, lanegunetan 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

BESTELAKOAK

▶ **Xabier:** Asteburuan, aurtengo bigarren Xabierraldia egingen dute. Meza arratsaldeko bostetan izanen da.

Maria Cuetos



• MARIA CUETOS

'Entramados'

Non: Pintzel galerian (Abejeras,6).

Noiz arte: Martxoaren 27a arte.

Ordutegia: Lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.